BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**PRENTSARAKO OHARRA**

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK, EMAKUMEEK LANDA ETA ITSAS INGURUNEETAKO GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOETAN BETE IZAN DABEN LEKUA ERREIBINDIKETAN DABEN ARGAZKI ERAKUSKETEA JASOKO DABE

- **GAITTUN Elkarteak antolatu dauen "BIZKAIAN BADITUN! ITSAS LANDA INGURUNEKO EMAKUMEAK" erakusketea, landa eta kosta inguruneko Bizkaiko landa eta itsas ingurunearen gaur eguneko eta iraganeko begiradea da.**

- **Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko egoitzako Erakusketa Aretoak formatu handiko 12 argazki jasoko ditu, landa ingurunean eta kostan, gehien bat gizonarenak izan diran beharretan, emakumeak bete izan dauen leku ezkutua erreibindiketan eta ikusiarazoten daben emakumeen lekukotzakaz.**

- **Erakusketea dobakoa da, eta 08:00etatik 20:00etara bisitau ahal izango da, astelehenetik barikura, irailaren 28ra arte.**

(*Bilbon, 2020ko irailaren 8an*). Bizkaiko Batzar Nagusiek eta GAITTUN Elkarteak, Gema Arrugaeta argazkilariagaz batera, euren indarrak batu ditue emakumearen ikuspegitik, irail honetan, "BIZKAIAN BADITUN! ITSAS LANDA INGURUNEKO EMAKUMEAK" erakusketaren bitartez, emakumeak betidanik landa eta itsas ingurunean, gizona nagusi izan dan lan arloetan, bete izan dauen lekua erreibindiketako. Erakusketea, bardintasuna sustatzeko Bizkaiko Batzarra aspalditik bultzatzen ari dan politiken barruan dago, eta irailaren 28ra arte egongo da zabalik, 08:00etatik 20:00etara astelehenetik barikura, Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua. Bilbo). Sarrera librea izango da.

Erakusketak, formatu handiko 12 argazki eta hainbat belaunalditako emakumeen lekukotzak jasoten ditu, emakumeek Bizkaiko eskualde guztietan euren eguneroko jardunean egin daben beharra eta bete daben lekua azalduz, kostaldeko herrietatik lurraldeko landa guneko azken txokoraino. Ikonografia hori, soroetan, itsasoan, familia hazten… beharrean aritu dan eta gure kulturea, gure historia eta gure hizkuntza kontserbetan jakin dauen emakumeen belaunaldiari egindako omenaldi moduan antolatu da. Erakusketea osatzeko, gai horretan sakontzen dauen argitalpen bisuala eta erakargarria egin da, amamen, amen, alaben eta biloben beharra

aintzatesteko eta ikusgai bilakatzeko asmoagaz.

Hainbat lekukotzaren bitartez, eta hainbat belaunalditatik egindako joan-etorrian, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariaren berbetan, *"hor dagozan, eta ahotsa daukien arren, entzuten ez diran"* emakumeen bitartez bardintasunerako mezua emoten dau. Landa eta itsas inguruneko mundua hirigunean alkartzen da, *"etorkizuneko belaunaldiek euren jarduerea ezagutzeko eta aurrera eroateko erreferenteak euki daiezan. Gizarteak hareen bizitzeko modua balorau eta estereotipoak apurtu daizan. Gizonen eta emakumeen arteko bardintasuna benetakoa izan daiten, gizaldietan batez be gizonezkoek bete daben sektorean",* esan dau.

GAITTUN Elkartea, Euskal Herriko landa eta itsas ingurunea ezagutzeko, sustatzeko eta ezagutuarazoteko beharraren aldeko apustua egin dauen alkartea da, emakumeak erlo horretan egin dauen beharra ikusgai bilakatzeko eta emakumea bera ahalduntzeko.

GAITTUN Elkarteak prestau dauen erakusketea martxan jarteko laguntzea, Bizkaiko Batzarrak azken urteetan gizarte bardintsuagoa lortzeko aurrera eroaten ari dan jardueren barruan dago. Bizkaiko Batzar Nagusiek gizonen eta emakumeen arteko benetako bardintasunaren alde behar egiteko daukien konpromisoak saltu kualitatibo handia jaso eban 2017an, erakundeak I. Bardintasun Plana egin ebanean. Bizkaiko Batzarrak izan ziran bardintasun plana onartu eban Estaduko bigarren legebiltzarra, Nafarroakoaren ostean, eta denpora honetan guztian behar pedagogiko garrantzitsua ari da egiten barrura eta kanpora begira (prestakuntzea, berbaldiak, mahai-inguruak, jardunaldiak, erakusketak…) bardintasunerako politikak bultzatzeko helburuagaz.

Bizkaiko Batzar Nagusietako bardintasun plana aho batez onartu zan, Batzarretako talde guztien aldeko botoagaz, eta administrazino publikoek bertako personen bardintasuna bultzatzera zuzendutako politika espezifikoak sartu behar dituela sinestearen ondorioz egin da. Holan, bardintasunerako politiketan erreferente bilakatuko dira, gizarte osoarentzat. "BIZKAIAN BADITUN! ITSAS LANDA INGURUNEKO EMAKUMEAK" erakusketea helburu horren beste adibide bat da.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**NOTA DE PRENSA**

# LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA ACOGEN UNA EXPOSICIÓN FOTOGRÁFICA QUE REIVINDICA EL PAPEL SOCIAL Y ECONÓMICO DE LAS MUJERES EN LOS ENTORNOS RURAL Y LITORAL

- **La muestra "BIZKAIAN BADITUN! MUJERES DEL MEDIO RURAL Y LITORAL DE BIZKAIA", organizada por GAITTUN Elkartea, es una mirada vital de Bizkaia en clave femenina.**

- **La Sala de Exposiciones de la sede bilbaína del Parlamento de Bizkaia reúne 12 fotografías de gran formato con testimonios femeninos que reivindican y visibilizan el papel de la mujer trabajadora en el medio rural y litoral.**

- **La muestra es gratuita y puede visitarse en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes, hasta el 28 de septiembre.**

(*Bilbao, a 8 de septiembre de 2020*). Las Juntas Generales de Bizkaia y GAITTUN Elkartea, junto con la fotógrafa Gema Arrugaeta, han unido fuerzas para reivindicar durante este mes de septiembre, a través de la exposición "BIZKAIAN BADITUN! MUJERES DEL MEDIO RURAL Y LITORAL DE BIZKAIA", el papel que ha protagonizado históricamente la mujer en el campo y en la mar. La muestra, una iniciativa más dentro de las políticas de fomento de igualdad que viene realizando el Parlamento de Bizkaia desde hace años, estará abierta hasta el 28 de septiembre en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes, en la Sala de Exposiciones de la Cámara vizcaína (C/ Hurtado de Amezaga, 6. Planta baja. Bilbao), con acceso libre.

La exposición reúne 12 fotografías de gran formato y testimonios de mujeres de distintas generaciones, que repasan el trabajo y el quehacer diario en cada una de las comarcas de Bizkaia, desde los municipios costeros hasta el último rincón rural del territorio. La iconografía se ha montado como un pequeño homenaje a esas generaciones de mujeres trabajadoras del campo, de la mar, y del cuidado de la familia, que han sabido conservar nuestra cultura, nuestra historia y nuestra lengua. La muestra se complementa con una publicación, visual y atractiva, donde se profundiza en dicha temática, con el propósito de reconocer y visibilizar el trabajo de abuelas, madres, hijas y nietas.

A través de diversos testimonios, en una ida y venida por varias generaciones, la muestra ofrece un mensaje de igualdad a través de mujeres

que "*están ahí, con voz, pero que no se oyen*", en opinión de la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui. El mundo rural y marino se entremezcla en pleno centro urbano "*para que las futuras generaciones cuenten con referentes donde puedan reconocerse y desarrollar su actividad. Con el objetivo de que la sociedad valore su forma de vida y rompa estereotipos. Donde la igualdad entre hombres y mujeres sea efectiva en un sector masculinizado desde hace siglos*", ha dicho.

GAITTUN Elkartea es una asociación que ha apostado por una labor de conocimiento, promoción y divulgación del medio rural y litoral vasco en general, trabajando para lograr visibilizar y empoderar el trabajo de las mujeres de dichos ámbitos.

El apoyo para la puesta en marcha de esta exposición, ideada por GAITTUN Elkartea, forma parte de las actividades que en los últimos años está impulsando el Parlamento de Bizkaia para lograr una sociedad más igualitaria. Este compromiso de las Juntas Generales de Bizkaia por trabajar a favor de una igualdad real y efectiva entre hombres y mujeres, dio un salto cualitativo en 2017, cuando la institución elaboró su I Plan de Igualdad. La Cámara vizcaína fue el segundo parlamento del Estado en aprobar un plan de igualdad tras Navarra y desde ese tiempo lleva desarrollando una importante labor pedagógica a nivel interno y externo (formación, charlas, debates, jornadas, exposiciones…) con el objetivo de fomentar e impulsar políticas de igualdad.

El plan de igualdad del Parlamento de Bizkaia fue acordado por unanimidad, con el apoyo de todos los grupos junteros, y es fruto del convencimiento de que las administraciones públicas deben incorporar políticas específicas dirigidas a favorecer la igualdad de sus personas, y convertirse así, en referentes de políticas de igualdad para el resto de la sociedad. La exposición "BIZKAIAN BADITUN! MUJERES DEL MEDIO RURAL Y LITORAL DE BIZKAIA" es un nuevo ejemplo.